



EDUKI SENTIKORRA

Ziklo honek zure sentikortasuna
mindu dezaketen istorioak eta
bizitzak biltzen ditu.

Horregatik da beharrezkoa.

IKUSI ORAIN


XIX zinema
erakusketa

myndya eta giza
eskubideak

2024 azaroa 11 - 15 **golem baiona**



golem



SUBVENCIÓN / DIRUZ LAGUNDU DUTE



GOIZEKO HEZIKETA SAIOAK

Erdi Mailako Ikasteak

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.

Saio guztiak 9:15etatik 11:45era izango dira.

AZAROAREN 11n ASTELEHENA

TE ESTOY AMANDO LOCAMENTE

Alejandro Marin (Espainia, 2023, 107')

Sevilla, 1977. Homosexualitatea delitua den une batean, **Reme**, artista izan nahi duen seme nerabearenganako maitasunak mugiarazitako emakume tradizional bat, Andaluziako LGBTI mugimenduan inplikatu da, paradokiko Elizaren baitan sortutako mugimendu batean.

SOLASALDAN ESKU HARTUKO DU:

EHGAM Nafarroa. Mugimendu askotariko, autonomo eta iraultzailea Euskal Herriko sexu-askatasunaren alde. 1978an sortua, bere borroka sexu-genero askatasunean jartzen du arreta, identitate jakin batetik harago. Nafarroan, **Kattalingorrin** eta **Plataforma 28Jn** parte hartzen du, eta hainbat kanpaina eta jardunaldi egiten ditu, adibidez, **MAPIPENSANDO** eta **XOKA**.

AZAROAREN 12an ASTEARTEA

CLOSE

Lukas Dhont (Belgika, 2022, 104')

Léo eta **Rémi** bi nerabe dira, oso lagun onak direnak eta beren denbora libre gehiena elkarrekin igarotzen dutenak. Bigarren Hezkuntza hasitakoan, **Léo** eta **Rémi** beste ikasle batzuk ezagutuko dituzte. **Léo** nahasita sentituko da, gainerako ikaskideak **Rémi**rekin duen harremanaren izaera zalantzan jartzen hasten direnean, bikotea izan daitezkeela iradokita. **Rémi**rekin denbora igarotzen jarraituko badu ere, **Léo** harengandik urruntzen hasiko da.

SOLASALDAN ESKU HARTUKO DU:

JUAN ARTEAGA. Kazetaria, irakaslea eta kultura-kudeatzailea, zinemari eta ikus-entzunezkoetan espezializatua. Hainbat zinema-jaialdiren berri eman du, eta solasaldiak, ikastaroak eta zikloak egiten ditu ikus-entzunezko kultura garaikidearen zenbait alderdiri buruz.

AZAROAREN 13an ASTEAZKENA

RAFIKI

Wanuri Kahiu (Kenya, 2018, 83')

Nairobi, **Kena** eta **Ziki** ikasleek oso bizimodu desberdinak dituzte, baina biak ahalgintzen dira beren ametsak lortzen. Bien gurasoak aurrez aurre dituen hauteskunde-kanpaina baten erdian gurutzatuko dira beren bideak. Biek elkar gustuko dute, baina Kenyako gizartea oso kontserbadorea da, eta maitasunaren eta segurtasunaren arteko hautua egin beharko dute.

SOLASALDAN ESKU HARTUKO DU:

ALICIA PANO. Aktibista transfeminista, besteak beste, Zikutak eta Lumatza taldeetan. Lizentziaduna da Humanitateetan eta aditua Generoan, genero eta LGBTIQ gaientako prestakuntzan esperientzia luzeakoa.

AZAROAREN 11n, ASTELEHENA

19:30ean / 6,00€

SEXU-ERASOAK
ADINGABEEI

LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN

Juana Macías (Espainia, 117'. 2024)

JULIETA TOBÍO · SALUA HADRA · MARÍA STEELMAN

LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN

UNA PELÍCULA DE JUANA MACÍAS
BASADA EN UNA HISTORIA REAL

GOIBIDATUAK

JUANA MACÍAS, filmaren zuzendaria, eta **MARÍA STEELMAN** (Sevilla, 2005). LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN filmean protagonistetako bat izatea egin duen aurreneko aktore-lana izan da. Egun, Ingeniaritza Elektronikoko ikasketak egiten ari da, eta antzeppen-eskoletara joaten da. Bere pasioetako bat dantza da.

SARIAK

Epaimahai Gaztearen Saria SCHLINGEL International Film Festivalen, Alemanian (2024).

SINOPSISIA

Jara, **Álex** eta **Miranda** adingabeen zentro batean hazi diren hiru neska dira, baldintzarik gabeko maitasuna zer den jakin gabe.

Jararen urtebetetzea da, eta hirurek beren trap queen gogokoenaren kontzertuan ospatu nahi dute. Ez dute dirurik, ezta hura lortzeko modu askorik ere, baina auzoan beti ibiltzen da zertxobait zaharragoa den beste neska bat, zentro horretan bizi izandakoa eta geltokiko komunitan helduekin hitzorduak edukitzea eskaintzen diena.

Pixkana, eta kontrola dutela sinetsita, adingabeen prostituzio-sare batean harapatuta geldituko dira. Haietako bati egingo dioten talde-bortxaketak dena hankaz gora jarriko du azkenean.

JUANA MACÍAS (Madril, 1971) Zinema-zuzendaria eta gidoilaria, 1994an eskuratu zuen Ikus-entzunezkoen Komunikazioko lizentzia, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. 1999an, fikziozko film labur onenaren Goya saria lortu zuen SIETE CAFÉS POR SEMANA lanarengatik. 2010ean, zuzendari berri onenaren Goya sarirako izendatu zuten PLANES PARA MAÑANA filmarengatik. Azken film horrek, Zilarrezko Biznaga saria lortu zuen, zuzendaritza onenarengatik, Málagaiko Jaialdian.

Ondoren egin dituen film luzeak hauek izan dira: EMBARAZADOS (2016), BAJO EL MISMO TECHO (2019), FUIMOS CANCIONES (2021), EL FAVOR (2023) eta LAS CHICAS DE LA ESTACIÓN (2024). Egun, zazpigarren film luzearen preproduzioan dago: LOOKING FOR MICHAEL (2025).

Dónde vamos a vivir

Mujeres contra el desahucio

Un documental de Georgina Cisquilla



GONBIDATUA

GEORGINA CISQUILLA,
filmaren zuzendaria.

AZAROAREN 12an, ASTEARTEA

19:30ean / 6,00€

**ETXEBIZITZA DUINA
IZATEKO ESKUBIDEA**

DÓNDE VAMOS A VIVIR / MUJERES CONTRA EL DESAHUCIO

Georgina Cisquilla (Espainia, 61'. 2024)

SINOPSISIA

Espainian etxebizitzarekin dagoen arazoa irudikatzen duen film dokumentala da. Madrilan filmatua hiru urtean, urtero gertatzen diren milaka etxegabetzeei aurre egiteko emakumeek duten eginkizunean jartzen du arreta. Haien historien bidez, duela hamarkada batetik baino gehiagotik etxebizitza duin baterako eskubidea aldarrikatzen duten eta hipoteka-krisiaren ondorio larriak, alokairuen abusuzko emendatzea eta putre-funtsek egiten duten merkatu-kontrola salatzen dituzten gizarte-mugimenduen borrokari jarraipena egiten dio.

GEORGINA CISQUILLA Kazetaria, gidoilaria eta zinema dokumentaleko zuzendaria da, RTVEn ibilbide luzekoa. Korresponentsal diplomatikoa izan da, informazio-saioen aurkezlea, besteak beste, Informe del día eta Informe Semanal saioena, eta espezialista zinema-arloan albistegietan. 2004 eta 2008 artean, zuzendaria eta formatu berrien sortzailea izan zen TVE2rako, adibidez, Miradas 2 eta Cámara abierta 2.0 saioetarako.

Egin dituen gidoilari- eta zuzendari-lanetan hauek nabarmendu behar dira: EL EFECTO IGUAZÚ, dokumental onenaren Goya saria jasoa (2002), eta zuzendari gisa, OXÍGENO PARA VIVIR (2011), COCA-COLA EN LUCHA / CUANDO DAVID SE ENFRENTA A GOLIAT (2016). Aurreko lanen artean hauek daude: SUBCOMANDANTE MARCOS, VIAJE AL SUEÑO ZAPATISTA, ME ESTOY QUITANDO, EN EL MUNDO A CADA RATO eta HOTEL EXPLOTACIÓN: LAS KELLYS.



AZAROAREN 13an, ASTEAZKENA

LAN-ESPLOTAZIOA,
KAPITALISMOA

19:30ean / 6,00€

ON FALLING

Laura Carreira (Erresuma Batua - Portugal, 104'. 2024)



GONBIDATUA

BEGOÑA PÉREZ ERANSUS

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Sai-leko irakasle titularra. Irakaskuntza ematen du Gizarte Laneko Graduan, Gizarte Politikako irakasgaiari, eta NUPeko Esku-hartze Sozialeko Unibertsitate Masterrean. Bere ikerketa-ildoek gizarte-bazterketaren arloan eta gizarte-politika publikoaren analisisan jartzen dute arreta, eta Estatuko eta Europako hainbat ikerketatan parte hartu du. Unibertsitate Proiektzio, Kultura eta Dibulgazioiko errektoreordea

SINOPSISIA

Aurora portugaldarra da, eta Eskoziako biltegi handi batean lan egiten du. Lan-tokiko hormen eta etxebizitza partekatuko bakardadearen artean harrapatuta, Aurora bakartzeari, alienazioari eta elkarrizketa hutsalei aurre egiten saiatuko da, bere buruaz duen kontzientzia mehatxupean egoten hasiko baita. Algoritmoetan oinarritutako eta bereiz mantentzeko diseinatutako ekonomia nagusi den ingurune batean, ON FALLING lanak zentzua aurkitzeko eta konektatzeko borroka isil eta bizia esploratzen du.

LAURA CARREIRA (Porto, Portugal, 1994) Portugaldar zuzendari eta gidoilaria. RED HILL bere lehen film luzeak New Visions saria lortu zuen Edinbugoko Nazioarteko Zinema Jaialdian. THE SHIFT bere film laburrak talentu berriaren saria irabazi zuen IndieLisboan. 2022an, Screen International aldizkariak Rising Stars Scotland izarretako bat izendatu zuen Laura. Bere lehen film luzea, ON FALLING, zuzendari exekutibo **Ken Loach** duena, Torontoko Nazioarteko Zinema Jaialdian estreinatu zen, eta Europako estreinaldia Donostiako Zinemaldian izan zen.

SARIAK

Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra Donostiako Zinemaldian (2024).



AZAROAREN 14an, OSTEGUNA

19:30ean / 6,00€

ISRAELDARREN OKUPAZIOA,
PALESTINARREN ERRESISTENTZIA

NO OTHER LAND

*Basel Adra, Hamdan Ballal, Yuval Abraham, Rachel Szor
(Palestina-Norvegia, 95'. 2024)*

GOIBIDATUA

LIDÓN SORIANO

Lizentziaduna eta doktorea da Hezkuntza Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, eta Fisioterapiako, Irakasle-ikasketetako eta Erizaintzako graduak ere baditu. Azken horrekin lotuta, gainera, Nafarroako osasun-eskolan Osasun Larrialdietako irakaslea da. 20 urtetik gora daramatza irakasle-lana, laguntza ematekoa eta ikertzekoa elkartasun-jarduerekin bateratzen, Palestinan osasuneko GKE batekin lankidetzan arituz. 17 delegazio koordinatu ditu lurralde palestinar okupatuetara eta Israele-ra, eta gatazkaren gaineko ezagutza zabal-zabala du, bai arlo akademikoan, bai eta bizipenen arloan ere.

SINOPSISIA

Basel Adra, Masafer Yattako palestinar gazte aktibista, Zisjordanian, haurtzarotik ari da borrokatzen israeldar agintariak bere komunitatea masiboki kanporatzearen aurka. Bera jaiotzen zenean eskualdeko herriak kamera geldoan desagerraraztea dokumentatzen du, Israelgo gobernuak hedatutako soldaduek pixkana eraisten baitituzte etxeak eta egozten baitituzte biztanleak. Une batean, **Yuval** ezagutuko du, israeldar kazetaria, bere ahaleginetan babestuko duena. Hala, nekez sinesteko aliantza sortuko da bien artean. Dena den, bien arteko harremana tenkatu egingo da, bereizten dituen berdintasunik ez ikaragarriarengatik: **Basel** militarren okupaziopean bizi da; **Yuval**, aldiz, libre eta murrizketarik gabe.

BASEL ADRA palestinar aktibista eta kazetaria da. **HAMDAN BALLAL** aktibista, Palestinaren giza eskubideen defendatzailea eta Humans of Masafer Yatta proiektuko kidea. **YUVAL ABRAHAM** israeldar ikerketa-kazetaria, zinema-zuzendaria eta arabiera-hebreera itultzailea. **RACHEL SZOR** israeldar argazki-zuzendaria, editorea eta zuzendaria, egun Jerusalem bizi dena.

SARIAK

Ikus-entzuleen Saria eta Dokumental Onenaren Saria Berlingo Nazioarteko Jaialdian (2024), Ikus-entzuleen Saria CPH:Dox Kopenhageko Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdian (2024), Ikus-entzuleen Saria ZagrebDox Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdian (2024) eta Ikus-entzuleen Saria Visions du Réel Zinemako Nazioarteko Jaialdian.



AZAROAREN 15ean OSTIRALA



17:30ean

MEMORIA HISTORIKOA

16060 EGUN / DÍAS

Iñaki Alforja, Iban Toledo (Espainia, 27'. 2024)

DOAKO
SAIOA

GONBIDATUAK

IÑAKI ALFORJA SAGONE dokumentalaren zuzendaria eta **ENEKO ETXEBERRIA**, **Jose Miguel Etxeberria** "Naparra"-ren anaia.

IÑAKI ALFORJA SAGONE (Iruñea, 1967). 35 urtetik gorako esperientzia duen dokumentalista eskarmentudun honek dokumentalak, publizitate-kanpainak, iragarkiak eta bideo-klipak egin ditu lau kontinentetan. Irudiekien kontatzeko modu berezi bat dauka, eta, gainera, Iñakik produkzio-prozesuaren alderdi guztietan lan egin du: ideia, garapena, preproduktzioa, filmaketa, edizioa, postproduktzioa eta esportazioa sareetarako edo pantaila handirako. Argazkilaritzako zuzendari gisa egin dituen lanen artean hauek nabarmendu behar dira: WHY, MATRIOSKAS eta EL DROGAS. Eta bere proiektu moduan, beste hauek: HISTORIA DE UN VOLANTE, MOTXILA 21, EL VUELO DE LAS LIBÉLULAS eta OSKARA.

IBAN TOLEDOk bi hamarkada baino gehiago daramatza ikus-entzuzkoen arloan lan egiten. Lehenbizi, errealizadore lanetan telebistako albistegietan, eta gero, kamerari eta argazkilaritzako zuzendari lanetan dokumentaletan. 2009 eta 2015 urteen artean komunikazio-entrepresa bateko kidea izan zen, eta bertan bideo korporatiboak, erakundeetarakoak, publizitatekoak eta dokumentalak egin zituen, argazkilaritzako zuzendariaren, kamerariaren eta editorearen lanak eginez. 2015ean, bere proiektua jarri zuen abian: ON PRODUKZIOAK. Azken urte hauetan, gainera, hainbat dokumentaletan parte hartu du: NI ARGA, NI ULTZAMA, ZIORDIKO ILARGIA, PASAIAKO BADIA, ARALAR MUNDUA LEKU DEN LURRA...

Etxeberria familiarekiko elkartzasunaz gain, bi zuzendarien, proiektu honetan, konpromisoa dute memoria historikoari giza eskubideetan eta egiaresan, justiziaren eta erreparazioaren printzipioetan oinarrituta begiratzeko.



AZAROAREN 15ean, OSTIRALA

19:30ean / 6,00€



EGIA, JUSTIZIA
ETA ERREPARAZIOA

INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK

LET IT KNOW (QUE SE SEPA)

Amaia Merino eta Ander Iriarte (Espainia, 59'. 2024)

SINOPSISIA

ETAK familia bahitu eta Estatuak aita torturapean hil eta handik 40 urtera, **Tamara Muruetagoienak** egiaren eta justiziaren bilaketa nekazean bati ekingo dio. **Tamarak**, aurrez aurre, familiaren tragedia kontatuko du: iraultza-zerga, ETAKo komando baten bahiketa 17 egunean, ondorengo familia-desegituraketa, Estatuaren makinariaren jazarpena, presio politikoa, epaiketa, aita eta ama atxilotzea, torturak, hilketa... Baina, era berean, egiantz, aitortzarantz eta gatazkak konpontzeko tresna nagusi moduan elkarriketa erabiltzerantz egindako bidea ere kontatuko du.

AMAIA MERINO (Donostia, 1970). **Aitor Merino**rekin batera, ASIER ETA BLOK (2013) film luze dokumentala zuzendu zuen, Irizar Saria jasoa Donostian. Bertara itzuli zen 2020an, NON DAGO MIKEL? aurkezteko, **Miguel Ángel Llamasekin** batera zuzenduta, eta sari horren beraren aipamen berezia eskuratu zuen.

ANDER IRIARTE (Oiarzun, Gipuzkoa, 1986). Kataluniako ESCAC eskolan ikasi zuen, eta bertan, LOS INOCENTES (2013) film kolektiboan parte hartu zuen eta ECHEVARRIATIK ETXEBERRIARA (2014) dokumentala zuzendu zuen. Film laburrak eta, besteak beste, BIHAR DOK 13 (2018) eta KARPETA URDINAK (2022) film luze dokumentalak zuzendu ditu.

SARIAK

Ikus-entzuleen Saria Film Luze Onenari Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian (2024).

GONBIDATUA

AMAIA MERINO, dokumentalaren zuzendaria.